

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Derioko Udala****Derioko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra onartzea behin betiko.**

Korporazioko osoko bilkurak, 2022eko ekainaren 28ko bileran, Derioko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorraren hasierako onarpenari buruzko akordioa onartu du. Hori jendaurrean egon da hogeita hamar eguneko epean, iragarkia 2022ko uztailaren 15eko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hura aztertu ahal izateko eta egokitze jotzen diren erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Eta, jendaurreko epea eta aurretiko entzunaldirako epea amaituta, ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu, udaleko Idazkaritzak egindako ziurtagirian jasota dagoen bezala, beraz, akordio hori behin betikotzat jotzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatzen duenaren arabera, eta erabaki hau argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean (www.deriokoudala.net) eta iragarki oholean.

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Aretoan, bi hilabeteko apean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori guztia, egoki irizitako beste edozein aurkaratze-bide baliatzeari kalterik egin gabe.

Derion, 2022ko abuztuaren 23an.—Idazkaria

**DERIOKO UDALAK DIRU-LAGUNTZAK EMATEARI
BURUZKO ORDENANTZA OROKORRA**
ZIOEN AZALPENA

Ordenantza hau Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/29185 Legearen 4.1 artikulua esleitzen duen arazuko administrazio-ahalmena erabiliz eman da.

Administrazio Publikoen diru-laguntzen tratamendua araupetze aldera onartu zen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. Bestalde, lege hori garatu zuen 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Araudia onesten duenak.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLLO) zioen azalpenak ezartzen du beharrezkoa dela Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea araupetzen duten printzipioak aplikatzea aurrekontuaren osagaietan. Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legean inpiratuta, gardentasun-printzipioaren aplikazioa du ardatz eta, era berean, ardatz dira, diru-laguntzak izapidetzean, gastu publikoaren kudeaketan efizientzia- eta eraginkortasun-printzipioak.

Horrenbestez, ordenantza honek Udal honen diru-laguntzak emateko jarduera araupetuko du, eta horren barnean dago aipatutako printzipioetara egokitu beharra eta zehapen-araubidea.

Horrek guztiak justifikatu egiten du araua egokitzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako araupetze egokiko printzipioetara eta, horrekin bat, bete egiten da administrazio publikoek beharizan, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientzia printzipioekin bat jarduteko betebeharra.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. artikulua. — Xedea eta kontzeptua**

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Ordenantza honen bidez, Udal honek diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarriak ezarri dira, betiere aipatu legean jasotakoari jarraikiz, honako printzipio hauen arabera: berdintasuna, publikitatean diskriminaziorik ez egitea, lehia, objektibotasuna eta eraginkortasuna.

2. Ordenantza honetan diru-laguntzat joko da Derioko Udalaren edo zuzenbide publikoko erakundeen (izaera juridiko publikoa dutenak eta Udalarekiko lotura zein mendekotasuna dutela) kargura eginiko edozein diru-emate; zehazki, honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsona publiko edo pribatuei egindakoak:

- Diru-ematea onuradunen zuzeneko kontra-prestaziorik gabe egitea.
- Diru-ematea lotuta egotea helburu bat lortzeari, proiektu bat gauzatzeari, jardueira bat egiteari, portaera berezi bat izateari edo egoera bat gertatzeari. Horiek eginda edo egiteke egon daitezke, eta onuradunak zehaztutako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.
- Proiektuak, ekintzak, jarrerak edo finantza-egoerak helburu izatea erabilera publikoko, interes sozialeko edo xede publikoko jarduerak sustatzea.

3. Halaber, diru-laguntzat joko dira (eta, horrenbestez, ordenantza honetan ezarritako araubidea ezar dakieke) bekak, hobariak edo sariak, onuradunak alde zuzenetik eskatu gabe ematen direnean izan ezik; halaber, diru-laguntzat joko da Europar Batasunaren edo beste administrazio batzuen funtsekin osorik edo zati batean Udal Aurrekontu Orokorraren kargura emandako edozein laguntza.

4. Laguntza edo diru-laguntzak udal-titulatasuneko ondasunen gozamenaren edo aprobetxamendua doan besterentzean edo lagatzean dautzanean, aplikatu beharreko ondare-araudiak xedatutakoa hartuko da aintzat.

**2. artikulua. — *Printzipio eta betekizun orokorrak***

1. Udalaren diru-laguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:
 - a) Baremo, parametro edota irizpide objektiboak erabiltzearen mende egongo da udal-administrazioak diru-laguntzak emateak dakarren funts publikoen banaketa. Hain zuzen ere, alde zuzenetik ezagutu beharko dituzte horiek diru-laguntzen onuradun izan litezkeenek.
 - b) Publikotasuna, gardentasuna, lehia askea, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
 - c) Eraginkortasuna, jarritako helburuak betetzerakoan.
 - d) Eraginkortasuna, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan.
2. Baldintza hauek bete beharko dira diru-laguntzak ematean:
 - a) Borondatezkoak, aldi batekoak eta finalistak izango dira, salbu eta legez edo arauz besterik xedatzen bada.
 - b) Lehendik emandako diru-laguntzek ez dute eskatzaileen aldeko inolako eskubiderik sortuko, eta ez da aurrekari hori aintzat hartuko berriro diru-laguntza emateko irizpide gisa, salbu eta legez edo arauz besterik xedatzen bada.
 - c) Ezingo da eskatu diru-laguntzaren zenbatekoa handitzeko edo berrikusteko, salbuespenezko egoeretan izan ezik.

3. artikulua. — *Diru-laguntzen Plan Estrategikoa*

Oro har, ahaleginak egingo dira edozein kudeaketa modu edo sistemaren bitartez emateko asmoa dagoen Udalaren diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Plan Estrategikoa jasotzeko; hain zuzen ere, ematea aurreikusitako diru-laguntza guztiak agertu beharko dute bertan, bai Udalarenak, bai Udalarari atxikitako zuzenbide publikoko erakundeak ere (berezko izaera juridikoa, eta lotura edo mendekotasuna dutenak).

Orobat, diru-laguntza eta laguntza bakoitzari dagokionez, Planak honako hauek jasoko ditu:

- a) Diru-laguntzaren xedearren, helburuen eta lortu nahi diren ondorioen deskribapena.
- b) Hartzaileen deskribapena.
- c) Emate-modalitatea.
- d) Eskariak aurkezteko epea, behar izanez gero.
- e) Aurrekontuetan deialdi edo modalitate horretarako finkatutako diru-kopuruak, baita gastua zein gastuari dagokion aurrekontu-partida ere.
- f) Bizirik dauden diru-laguntzetatik (aurreko aurrekontu ekitaldietakoak) gauzatzeko dauden diru-kopuruak. Horiek bukatuko direneko datak eta atzerapenaren justifikazioa, halakorik izan bada.

Zuzeneko laguntza nahiz diru-laguntza oro baliorik gabea izango da aurrekontu-kreditu egoki eta nahikorik izan ezean.

Alkateak onetsi baino lehen, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Ogasun Batzordeari aurkeztuko zaio Aurrekontuarekin batera (eranskin gisa), ezagut dezan. Halaber, Udalaren webgunean argitaratuko da.

4. artikulua. — *Diru-laguntzak emateko eskumena*

Alkateak izango du laguntza edo diru-laguntzak emateko eskumena, ekonomia-kudeaketa eta, beraz, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa bideratzeko zeregina bere gain hartua duen organoa izaki; hala ere, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 21.3 artikuluan finkatutakoaren ildotik besteren gain utzi ahal izango du zeregin hori.

Nortasun juridiko propioa duten eta Derioko Udalarari lotuta dauden edo haren mendeko diren zuzenbide publikoko erakundeen eta bestelako zuzenbide pribatuko erakundeen esparruan, euren estatutuetan zeregin hori aitortzen zaien organoek egingo dute, eta horietan halakorik ageri ez bada, berriz, erakunde autonomoko zuzendaritza-kontseiei



luak izango du ardura hori, edo administrazio-kontseiluak, merkataritza-sozietate lokalen edo enpresa-erakunde publiko lokalen kasuan.

II. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN SUBJEKTUAK ETA EDUKIA

5. artikulua. — *Onuradunak*

1. Diru-laguntzaren xede den jarduera bideratu behar duen edo hura ematea zilegi egiten duen egoeran dagoen pertsona fisikoa edo juridikoa joko da diru-laguntzaren onuraduntzat.

Horrez gain, onuradunak izan ahalko dira pertsona fisikoen zein juridikoen talde publikoak nahiz pribatuak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein motatako batasun ekonomikoak zein ondarezkoak, izaera juridikorik ez badute ere proiektuak, jarduerak edo jokabideak gauzatu ahal badituzte edo diru-laguntza jasotzea ahalbidetzen duen bestelako egoeraren batean badaude. Dena den, taldearen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko da.

Helbidea Derio udalerrian dutela egiaztatu beharko dute onuradunek, baita, hala badagokie, Elkarteen izena Elkarteen Udal Erregistroan emana dutela ere, behar bezala justifikatutako salbuespenak salbu.

2. Ezin izango dira Lege honetan araupetutako diru-laguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile izan honako egoera hauetakoren batean dauden pertsona edo erakundeak, diru-laguntzaren izaera dela-eta araudiak salbuespena ezartzen duenean izan ezik:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak; halaber, honako hauekin lotutako delituengatik kondenatuak: prebrikazioa, eroskeria, diru publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak, legez kanpoko salbuespenak edo hirigintza-delituak.
- b) Borondatezko lehiaketa-adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat hartu izana, lehiaketetan daudela aitortu izana, epailearen esku-hartzearen mende egotea edo prozedura judizialari buruzko legearen arabera gaitasun gabetuta egotea, prozedura judiziala kalifikatzeko epaian finkatutako gaitasun-gabetzearen epealdia amaitu gabe.
- c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu suntsiarazteko erabaki irmoa hartu izana, erruduntzat jotzeko ebazpena dela eta.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen eta Gobernu kideen Bateriaezintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen zein Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean jasotako egoeran egotea. Halaber, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak araupetutako edozein eratako hautagaiak badira, horietan edo alderdi horiek araupetzen dituen autonomia erkidegoko legerian ezarritakoa aintzat hartuta.
- e) Indarrean diren xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean ez izatea, arauz xedatutako moduan.
- f) Egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskal gisa sailkatutako lurralde edo herrialde batean izatea.
- g) Egin beharreko ordainketak egunean ez izatea diru-laguntzak, itzultzeagatik, erregelamendu bidez xedatzen diren baldintzen arabera.
- h) Diru-laguntzak lortzeko aukera galtzera zigortutakoak, epaileak emandako epai irmoaren bidez.
- j) Halaber, ezin da kontraturik egin enpresekin, baldin eta uste bada enpresetako arduradunak edo bestelako baldintzak direla-eta kontratazio-bateriaezintasunak



zituzten enpresetatik eratorritako, itxuraldatutako, bat egindako edo ordezkaturako enpresak direla.

Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. ataletan aurreikusitako debeku-arrazoiren baten baitan dauden elkarteak ezin izango dira inola ere izan diru-laguntzen onuradunak edo diru-laguntza horien erakunde laguntzaileak.

Era berean, ezin izango dute onuradun edo erakunde laguntzaile egoera eskuratu izena emateko prozedura administratiboa eten zaien elkarteek ez-zilegitasun penaleko arrazoizko zantzuak aurkitu direlako, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedaturakoaren arabera, betiere ebazpen judizial irmoa ematen ez den bitartean bidezko erregistroan izena eman badaiteke.

Pertsona edo erakunde justifikazioa, adierazten duena ez daudela artikulua honetan adierazitako debekuen mende, lekukotza judizialaren, ziurtagiri telematikoen edo datuen transmisioen bidez egin ahalko da, bat etorri Estatuko Administrazio Nagusiak zein autonomia-erkidegoetakoek teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea araupetzen duen arauan ezarritakoarekin. Halaber, kasua zein den, administrazioaren ziurtagiria aurkeztu ahalko da, eta, agintaritzaren eskudunak ezin duenean agiri hori eman, administrazio-agintari baten edo notario publiko baten aurrean eginiko aitortzen arduratsua erabili ahalko da.

6. artikulua. — Onuradunen betebeharrak

Honako hauek dira onuradunen betebeharrak:

1. Xedea betetzea, proiektua exekutetzea, jarduera gauzatzea edo diru-laguntza jasotzea arrazoitzen duen jokabidea hartzea.
2. Diru-laguntza eman duen erakundearen edo erakunde laguntzailearen aurrean betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, hala badagokio. Era berean, justifikatu egin beharko da diru-laguntza ematea eta jasotzearen xedea bete dela.
3. Derioko Udalak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legeriak aurreikusitako egiaztatze-jardueren mende jartzea. Halaber eskumen hori esleituta duen beste organoei dagokienez. Halaber, kontrol-lanak egiten lagundu beharko dute; bereziki, ikertu beharreko agiriak ikusten nahiz horien kopiak eskuratzen uzten.
4. Erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea diruz lagundutako ekintza horiek gauzatzeko bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edota baliabideak jaso direla.
5. Jakinarazpen hori egin behar da berau ezagutu bezain laster eta, edozein kasutan, jasotako funtsei ezarpenaren justifikazioa egin baino lehen.
6. Diru-laguntza ematean kontuan izandako alderdi objektiborik nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea.
7. Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzea. Horri dagokionez, beste administrazioekin koordinatuko du bere jardura udal-administrazioak.
8. Onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egiaztatzea beharretik salbuets daitezke, diru-laguntzaren onuradunak erakunde publikoak badira.
9. Aplikagarri den merkataritza- eta sektore-legediak eskatzen dituen kontabilitate-liburuak, erregistroak (behar diren dilijentziak eginda) eta bestelako agiriak edukitzea, edo, bestela, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak behar bezala baliatzeke aukera bermatzen duten kontabilitate-egoerak.
10. Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten frogagiriak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, horietan erabili ahal direlako egiaztatzeke eta kontrola egiteko.



11. Diru-laguntza jasotzen duten programen, jardueren, inbertsioen nahiz bestelako ekintzen finantzazioaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, Derioko Udalaren logotipoa agerian jarriz, baita udalbatzak erabakitzen duen beste edozein ere.
12. Emakidaren karietara ezarritako betekizun zehatzak betetzea.
13. Ordenantza honetan itzultzeko arrazoi gisa aurreikusitako egoeretan, jasotako funts publikoak itzultzea.
14. Beren jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxkak, kartelak nahiz beste edozein euskarri baliatzen duten onuradunek bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute hori. Gisa berean, diru-laguntzaren xedea jarduera ireki bat delarik, edo ekitaldi publiko baten antolakuntza, bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dute horren zabalkundea onuradunek.

7. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen jarduera edo proiektuak

Udalak, Ordenantza honetan aurreikusitako prozeduren bidez, honako arlo hauetan eman ahalko ditu diru-laguntzak:

- a) Kultura: antzerkia, irudia, arte plastikoak, kultura tradizionala, topaketak eta beste jarduera batzuk.
- b) Euskara: euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko jarduerak.
- c) Musika: hainbat musika-estilotako ikuskizunak eta, batez ere, musika-prestakuntza praktikoko programak.
- d) Kirolak: lehiaketa ofizialetan parte hartetik eratorritako gastuak. Babes berezia izango du haurren eta gazteen kirolak. Halaber, kirol-ekitaldi bereziak lagundu ahalko dira diruz.
- e) Hezkuntza: diruz lagundu ahalko dira ikastaroak, mintegiak eta prestakuntzarekin lotutako beste jarduera batzuk.
- f) Gazteria: elkartegintza sustatzea eta ezartzea.
- g) Hirugarren adina: sektorean elkartegintza sustatzeko eta ezartzeko jarduerak.
- h) Turismo soziala: xede kultural nabarmena duten jarduera turistikoak.
- i) Osasuna eta kontsumoa: sektore horretako prestakuntza-jarduerak.
- j) Ingurumena: ingurumenaren inguruko sentsibilizazio-ikastaro eta -jarduerak.
- k) Herritarren parte-hartzea: herritarren erakundeak eta bizilagunen elkarteak diruz laguntzeko.
- l) Berdintasuna: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-aukerak sustatzeko jarduerak.
- m) Ekonomia-sustapena eta enpleguaren sustapena: langabetuen kontratazioa sustatzeko jarduerak, prestakuntzarako laguntzak.

III. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

8. artikulua. — Prozedura-motak

1. Nahi duen ororen arteko lehia baliatuko da diru-laguntzak emateko ohiko prozedura gisa. Hain zuzen ere, hauxe joko da nahi duen ororen arteko lehiatzat lege honi dagozkionetarako: diru-laguntzak aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren ematen diren prozedura, zeinen baitan horien arteko lehentasun-hurrenkera bat finkatuko baita, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideei jarraikiz, eta irizpide horiek aplikatzen direlarik baloraziorik handiena lortzen dutenei esleituko diru-laguntzak, erabilgarri dagoen kreditua, hots, deialdian finkatutakoa mugatztat harturik.



2. Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:
 - a) Erakundearen Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako izendunak, bat etorrita hitzarmenetan eta ordenantza honetan jasotakoarekin.

Udal-aurrekontuak jaso egingo ditu: onuradunaren izena, diru-laguntzaren xedea eta zenbatekoa.

Aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan adieraziko dira mota honetako diru-laguntzak, eta hitzarmen baten bidez formalizatuko dira; bada, hitzarmen horretan ezarriko dira ordainketa-modua eta diru-laguntzaren justifikazioa.

Hitzarmenik eskatzen ez duten diru-laguntzak hamabost egun balioduneko epean ordainduko dira, Aurrekontuaren indarraldia hasten denetik aurrera zenbatuta. Diru-laguntzaren justifikazioa epearen exekuzio-oinarriek ezarritako moduan eta epean egingo dira; bestela, Ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz.
 - b) Diru-laguntza nori emango zaion edo zenbatekoa izango den lege mailako arau baten bidez zehaztuta dutenak. Halakoetan, arau horretan finkatutako prozedurari jarraituko zaio.
 - c) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa eragozten duten beste arrazoi justifikatu batzuk egiaztatzen direnean.

9. artikulua. — Diru-laguntzen oinarri arautzaileak

Laguntza edo diru-laguntzak emateko oinarriek honako hauek jaso beharko dituzte gutxienez:

- a) Laguntza edo diru-laguntzaren xedearen, baldintzen eta helburuaren definizio argia eta zehatza.
- b) Esparru guztietan, diruz lagunduko diren jarduerak eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzak nori zuzenduak izango diren aintzat harturik, hizkuntza-irizpide jakin batzuk finkatu beharko dira oinarrietan, bi hizkuntza ofizialak modu egokian erabiliko direla bermatzeko. Irizpide horiek zehazteko txostena eskatuko zaio Euskara Zerbitzuari.
- c) Onuradunek edo erakunde laguntzaileek diru-laguntza eskuratzeko bete beharko dituzten baldintzak, eta eskatzaileek aurkeztu beharreko egiaztagiria.
- d) Eskabideak aurkezteko epea, eta zein zentro edo bulegotara bidali beharko diren.
- e) Eskaria bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak zein diren, baita diru-laguntza emateko proposamena egiteaz arduratuko den organoaren osaera ere.
- f) Diru-laguntza emateko modua eta baliatuko diren irizpide objektiboak, baita horien ponderazioa ere.
- g) Laguntza edo diru-laguntzaren banako zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak, eta, behar izanez gero, diru-laguntzak emateko gehieneko diru-kopurua.
- h) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak diru-laguntzaren helburua bete duela eta jasotako dirua horretarako baliatu duela justifikatzeko epea eta modua, baita horretarako zein agiri baliatu ahal izango diren ere.
- i) Diru-laguntza beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarri den ala halakoak jasotzearekin bateraezina den. Bateragarritzat joz gero, behar diren muga edo irizpideak finkatu beharko dira, gain-finantziatorik gerta ez dadin.
- j) Diru-laguntza ordaintzeko moduak eta epeak, eta, halakorik izanez gero, kontura ordaintzeko edo alde zuzeneko ordainketak egiteko aukera dagoela, alde zuzeneko ordainketarik egin nahiz kontura ordaintzekotan onuradunek edo erakunde laguntzaileek jarri beharko dituzten bermeak ordaintzeko epeak eta moduak eta horien erregimen partikularra, baita interes publikoak babeste aldera beharrezkotzat jotzen diren bestelako berme-neurriak ere.



- k) Laguntza edo diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen ez badira, hura itzultzeko obligazioa, baita, garatzen den jarduera kostatzen dena baino gehiago jasotzen bada, soberakoa itzultzekoa ere.
- l) Bete beharrekoak betetzen ez direnean eta itzuli beharreko laguntzak direnean, jasotako dirua itzultzeko prozedura, eta horretatik guztiz edo partez noiz libratu ahal izango den.
- m) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak dosierra bideratzen duen sailari, Derio-ko Udaleko Kontu-hartzaitzari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz beste-lako erakunde eskudunei eskatzen dioten informazio guztia helarazteko izango duen obligazioa.
- n) Interes publikoen aldeko bestelako edozein berme-neurri, beharrezkotzat jotzen delarik, baita, berariaz hala aurreikusten bada, emandako diru-laguntzak berri-kusteko aukera ere.
- o) Prozedura ebazteko epea eta epe horretan ez ebaztearen ondorioak, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien nahiz deialdiaren beraren kontra aurkez daitezkeen errekurtsoen azalpena, eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta zein epetan, interesatuek egokitzat jotzen duten beste edozein ere aurkeztu ahal izango badute ere.
- p) Jakinarazteko modua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikulua ildotik.

10. artikulua. — Diru-laguntza lehiaketa librearen bidez emateko prozedura

1. Abiaraztea

Interesdunak eskatuta nahiz ofizioz abiarazi ahal izango da diru-laguntzak emateko prozedura, aplikagarri den araudian finkatutakoaren ildotik.

Ofizioz abiarazten bada prozedura, eskumena duen organoak onetsitako deialdi publikoaren bitartez egingo da beti ere, eta horri dagozkion oinarri arautzaileei jarraiki jokatuko da. Laguntzak eta diru-laguntzak emateko deialdia arautuko duten oinarriak Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udalaren web orrian argitaratu beharko dira. Deialdiak, gutxienez, honako eduki hau jasoko du:

- a) Dagokion ordenantzaren argitalpenaren aipua.
- b) Zer aurrekontu-kredituri egotzen zaion diru-laguntza eta zenbatekoa den deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa, eskura dauden kredituen barruan, edo, bestela, zer zenbateko aurreikusten den diru-laguntzetarako.
- c) Diru-laguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.
- d) Adieraztea diru-laguntza ematea lehia-araubidean egin dela.
- e) Diru-laguntza eskatzeko, erakundeak udalerrian izan beharko du egoitza; hala-ber, udalerraren garapena egitatez sustatzeko jarduerak gauzatu behar ditu.
- f) Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak adieraztea,
- g) Eskakerak aurkezteko epea: Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.
- h) Ebazpena emateko eta jakinarazpena egiteko epea.
- i) Eskakerekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.
- j) Eskabideak birformulatzeko aukera, bat etorritik Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatutakoarekin.
- k) Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen adieraztea eta, horrela ez bada, zein organotan jarri behar den berraztertze errekurtsoa.
- l) Eskakerak balioesteko irizpideak.
- m) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42., 43., 44. eta 45. artikuluetan aurreikusitakoarekin.



2. *Eskariak aurkeztea*

Alkatetzari zuzendutako eskaera Udaleko sarrera-erregistroan edo 16. artikuluan adierazitako edozein bitarteko erabilia aurkeztu ahalko da, aintzat hartuta 14. artikuluan administrazio publikoekin harreman elektronikoak izateko eskubide eta betebeharez ezarritakoa. Bi artikulua dagozkie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeari.

Eskabidearekin batera deialdian finkatzen diren agiriak aurkeztuko dira, baita honako agiri hauek ere:

- a) Onuradunak diru-laguntza eskatzeko sinatutako instantzia, transferentzia egiteko kontu-zenbakia adierazita.
- b) Onuradunak jarduteko ahalmena duelako egiaztagiria eta, hala badagokio, ordezkariarena.
- c) Onuradun izatea eragozten duten debekuetako baten mende ez dagoelako egiaztagiria.
- d) Diru-laguntzaren edo laguntzaren xede den jardueraren memoria, txostena, azterlana edo proiektua.
- e) Gastuen aurrekontua.
- f) Jarduera berbererako eskatutako eta/edo emandako diru-laguntzen zerrenda zehatza.

Udalak lehendik badauzka eskatzen diren agiriak, eskatzaileak ez du edukiko berriz aurkeztu beharrik, baldin eta haien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Eskatzaileak agiriak zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo eman ziren zehaztu beharko du.

Eskaerak ez baditu deialdian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio falta dena aurkezteko, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean. Bestalde, adieraziko dio hala egin ezean ulertuko dela eskaeran atzera egin duela, aurrez ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

3. *Prozedura izapidetzea*

Instrukzio-faseak jarduera hauek hartuko ditu bere baitan:

- Beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatzea, ebazpena emateko edo diru-laguntza araupetzen duten arauak eskatzen dituztelako.
- Eskabideen ebaluazioa, diru-laguntza araupetzen duen arauak edo, hala badagokio, deialdian ezarritako balorazio-modu eta -lehenetasunen arabera.

Izapideak behin-behineko emakida-proposamena egingo dio organo emaileari, baina horrek ez du inolako eskubiderik sortuko Administrazioari proposatutako onuradunaren alde, emakidaren ebazpena jakinarazten dena arte. Behin-behineko emakida-proposamena alegazioak aurkezteko 10 eguneko epe batekin jakinarazi ahalko zaie interesdunei, eta behin betiko bihurtuko da alegaziorik jasotzen ez bada.

Entzunaldi-izapidea saihestu ahalko da prozeduran agertzen ez diren edo ebazpen-proposamenean interesdunak ekarritakoak ez diren beste gertaera, alegazio edo frogarik aintzat hartzen ez bada, eta kasu honetan, entzuteko izapidea alde batera utziko da.

Behin betiko emakida-proposamenak hauek jaso behar ditu:

- Diru-laguntza ematea proposatu den eskatzaileen zerrenda.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Emakida egiteko ebaluazioaren zehaztapenak eta jarraitutako irizpideak.

4. *Ebazpena*

Behin betiko ebazpen-proposamena onetsita, organo eskudunak modu arrazoituan ebaztuko du prozedura. Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hila-



betekoa izango da gehienez. Bada, gehieneko epe hori igarotzen bada eta interesdunei ez bazaie ebazpenik jakinarazi, diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bidez baztertu dela ulertuko da.

Prozeduraren ebazpena interesdunei behar den bezala jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Jakinarazpenak edo argitalpenak bat etorriko dira aipatutako legearen 41., 43., 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoarekin.

Gehieneko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunek zilegi izango dute diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertzea.

11. artikulua. — Diru-laguntzak zuzenean prozedura Hitzarmenak

1. Udal-aurrekontuak diru-laguntza hauetarako urteko kontsignazioa jasoko du.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura ofizios hasiko du diru-laguntzaren ardura duen aurrekontu-kredituaren zerbitzuak edo kudeaketa-zentroak; halaber, interesdunak hala eskatuta abiarazi ahalko da. Bada, interesdunak hala eskatuta abiarazten bada, eskabidea Ordenantza Orokor honen 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz aurkeztu behar du.

2. Hitzarmenak izango dira Derioko Udalaren aurrekontuetan zehaztutako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenean ezarriko dira diru-laguntza hauei aplikatu ahal zaizkien era guztietako betekizunak, eta honako hauek jaso beharko dituzte:

- a) Diru-laguntzaren xedea eta onuradunak zehaztea, aurrekontu-esleipenaren arabera.
- b) Gastua egozten zaion aurrekontu-kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa; onuradun bat baino gehiago badago, zenbateko hori banakatu egin behar da.
- c) Emandako diru-laguntza beste edozein administraziok edo erakunde pribatuk zein publikok (nazionalak, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek) helburu bererako eman dezaketen beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitartekoekin bateragarria den ala ez.
- d) Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak. Ordainketa aurreratua eta konturako abonua egiteko aukera. Baita ere, hala balitz, onuradunek aurkeztu beharreko berme-erregimena.
- e) Onuradunak diru-laguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua.
- f) Diru-laguntzak ematean ezarritako betekizunak betetzen ez direnerako graduzio-irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira onuradunak azkenean jaso behar duen zenbatekoa zehazteko edo, hala badagokio, itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko. Irizpideak bat etorriko dira proportzionaltasun-printzipioarekin.
- g) Hala badagokio, kontabilitate-liburu eta -erregistroak ezartzea, diru-laguntza egoki justifikatzen dela bermatzeko.

Diru-laguntza ez denean hitzarmen baten bidez formalizatzen, azken izapide bat egin beharko da: onuradunaren onarpena.

12. artikulua. — Justifikatzea eta kobratzea

Diru-laguntzen onuradunek derrigor justifikatu beharko dute diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatu dela, ezarritako betebeharrak bete direla, diru-laguntza emateko erabakigarri izandako helburuak edo xedea erdietsi dela, eta jasotako funtsak egoki aplikatu direla.

Udalean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eginiko jardueraren memoria. Gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: arduraduna, partaideen kopurua, eginiko jarduerak, udalerritik kanpo esku hartzen



duen jarduerak, balorazio globalaren emaitza eta etorkizunerako lan-proposamenena.

- b) Gastua justifikatzeko fakturak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
- c) Jarduerak diru-laguntzarekin ez ezik funts propioekin edo bestelako diru-laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu direnean, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funtsen zenbatekoaren, jatorriaren eta aplikazioaren justifikazioa egiaztatu beharko da.
- d) Diru-laguntzaren xedea lortu dela egiaztatzen duen aitortpena,
- e) Hala badagokio, udal-finantzazioaren inguruko dokumentazioa eta propaganda idatziaren eta grafikoa aurkeztuko da, dagokion deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean jasotakoarekin bat.

Justifikazio-dokumentazioa hilabeteko (1) epean aurkeztu beharko da, diruz lagundutako jarduera ematen denetik aurrera zenbatuta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean besterik ezartzen denean izan ezik.

13. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat egiten dutenak eta deialdiak edo hitzarmenak ezarritako epean gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen erosketa-gastuak ezin izango dira inola ere merkatuko balioa baino handiagoak.

14. artikulua. — Itzultzea

Jasotako dirua itzuli eta berandutze-interesak ordaindu beharko dira, diru-laguntzaren ordainketaren momentutik itzultzea adosten den datara arte sortutakoak, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 38.2 artikuluan xedatutako zenbatekoan, honako arrazoi hauengatik:

- a) Eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketena ezkutatu ezkutatuz eskuratu bada diru laguntza.
- b) Diru-laguntza ematea ekarri duen proiektuaren helburua –osorik nahiz zati bat– bete ez bada, diru-laguntza ematea ekarri zuen jokabidea nork bereganatu ez badu edo diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete ez badira.
- c) Diru-laguntza justifikatzeko beharra ez bada betetzen edo modu ez egokian betetzen bada, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak 30. artikuluan xedatzen duen bezala, eta Diru-laguntza arautzen duten araudien bezala.
- d) Difusio neurriak hartzen ez badira, aipatutako 38/2003 Legearen 18. artikuluan ezarritakoak.
- e) Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza-egiaztatze eta -kontrolerako jarduerari aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentuak gordetzeari dagokionez dauden betebeharrak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat diru-laguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benetakotasuna eta erregularatasuna, edo beste herri-administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berearekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.
- f) Administrazioak onuradunei ezarritako betekizunak ez betetzea, edota haiek, diru-laguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, diru-laguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduerari egiteko edota jokabidea aintzat hartzeko moduari dagokionez edo eragiten dionean.
- g) Administrazioak onuradunei ezarritako betekizunak (arestian aipatutakoak ez beste batzuk) ez betetzea, edota haiek, diru-laguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea diru-laguntza ematearen ondorioz, betiere jarraian



adierazitakoak egiaztatzea eragozten badu: jasotako funtsei eman zaien erabile-
ra, xedea bete den ala ez, diruz lagundutako jardueraren errealitatea eta erregu-
lartasuna edo edozein administratziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik
(estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak) xede berera-
ko diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen lehia.

- h) Europar Batasuneko Ituneko 87. artikulutik 89.era xedatutakoaren arabera, di-
ru-laguntza itzultzea dakarren erabakia hartzea.
- i) Diru-laguntza arautzen duen araudian aurreikusitako bestelako edozein egoera.

15. artikulua. — Aurreratutako ordainketak eta kontura eginiko ordainketak

Ordenantza espezifikoez kontura eta aldez aurreko ordainketak egitea aurrekusi
ahalko dute, kasu horietan onuradunek aurkeztu beharreko bermeak ezarrita.

16. artikulua. — Arau-hausteen arduradunak

Diru-laguntzen esparruan administrazioaren esparruko arau-hausteen arduradun
izango dira, egitez edo ez egitez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Le-
gean arau-haustetzat jasotakoak eta, bereziki, honako hauek:

- a) Diru-laguntzen onuradunak eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003
Legearen 11. artikuluan 2. atalaren eta 3. atalaren bigarren paragrafoan jaso-
tako pertsona edo erakundeak, egingo dituztela hitzemandako diruz lagundu diren
jarduerari dagokienez.
- b) Erakunde laguntzaileak.
- c) Jarduteko ahalmenik ez duten diru-laguntzen onuradunen legezko ordezkariak.
- d) Diru-laguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin lotura duten pertsona edo era-
kundeak, laguntzeko betebeharra eta eskatu adina dokumentazio eman behar
dutenak, bat etorrita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen
46. artikuluan xedatutakoarekin.

17. artikulua. — Erantzukizuna salbuestea

Aipatutako legean tipifikatutako egite edo ez egiteek ezingo dute administrazioaren
diru-laguntzen esparruko arau-haustetik eratorritako erantzukizunik eragin honako egoe-
ra hauetan:

- a) Jarduteko ahalmenik ez dutenek gauzatzen dituztenean.
- b) Halabehar-egoeretan.
- c) Erabaki kolektibo baten ondorio direnean, botorik eman ez denean edo erabakia
hartu zen bilerara ez bertaratzean.

18. artikulua. — Arau-hauste arinak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta diru-laguntzak arautzen
dituzten oinarrietan adierazten den edozein betebeharrak betetzen ez delarik, arau-hauste
arintzat joko da hori, baldin eta arau-hauste larria edo oso larria ez bada eta zigorra mai-
laketzeko elementutzat jotzen ez bada. Bereziki, jokabide hauek joko dira arau-hauste
arintzat:

- a) Jasotako funtsak zertarako balitu diren justifikatzeko kontuak epez kanpo aur-
keztea.
- b) Justifikatzeko kontu okerrak edo osagabeak aurkeztea.
- c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz aurreikusten ez badira ere,
diru-laguntza ematearen ondorioz inork bere gain hartzen dituen betebeharrak for-
malak ez betetzea, arauz finkatutako moduan.
- d) Kontabilitatearen eta erregistroen alorreko betebeharrak ez betetzea, eta
bereziki:
 - Eragiketaren bat oker jasotzea edo ez jasotzea kontabilitatean eta legeak es-
katzen dituen erregistroetan.



- Kontabilitatea egiteko, legez finkatutako erregistroak edukitzeko eta horien euskarri diren programa eta artxibo informatikoak eta erabilitako kodifikazio-sistemak gordetzeko betebeharra ez betetzea.
 - Kontabilitate bat baino gehiago izatea jarduera eta ekitaldi ekonomiko bera dela eta, erakundearen benetako egoeraren berri edukitzea eragotzita.
 - Euren izaera dela eta, dagokienaz bestelako xedeetarako erabiltzea kontuak, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailduta.
- e) Egiaztagiria edo horien agiri baliokideak ez gordetzea.
- f) Erakunde laguntzaileek 38/2003 Legean ezarritako betekizunak ez betetzea.
- g) Finantza-kontrolerako jardueri aurre egin, oztopo edo aitzakiak jarri edo uko egitea.
- Diru-laguntzen alorreko administrazio arau-hausteen erantzuleak, behar bezala jakinarazi arren, finantza-kontrolaren alorreko lanak egiten ari diren Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiko funtzionarioen jarduerak luzarazi, oztopatu edo galaraztera bideratutako ekintzak egiten dituen esan ahal izango da egoera hori sortu dela.
- Besteak beste, jokabide hauek joko dira aurre egite, oztopo edo aitzakiak jartze edo uko egitezat:
- Agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, egiaztagiria, kontabilitate-idazpenak, programa eta artxibo informatikoak, sistema eragileak eta kontrol-sistemak nahiz egiaztatu beharreko beste edozein datu ez aurkeztea edo horiek aztertzeko erraztasunik ez ematea.
 - Errekerimenduren bati ez erantzutea.
 - Adierazitako lekura ez agertzea horretarako emandako epean, arrazoi justifikaturen bat dagoenean izan ezik.
 - Sarbidea ukatzea edo ezeztatzea onuradunak zein erakunde laguntzaileak jasotako funtsak egoki justifikatzeko eta diruz lagundutako jardueraren errealitatearen eta erregulartasunaren proba-zantzuak dauden negozio-lokaletara eta gainerako establezimenduetara edo lekuetara;
 - Finantza-kontrola egiten duten langileekin bortxa erabiltzea.
- h) Lagundu beharra duten pertsona edo erakundeek laguntzarik ez ematea, horrek onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa erkatzea eragotzen duenean.
- i) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste larritzat jotzen diren gainerako jokabideak

19. artikulua. – Arau-hauste larriak

Jokabide hauek joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Helburu berarekin beste diru-laguntza, laguntza publiko, diru-sarrera edo baliabiderik eskatuz gero, diru-laguntza eman duen organoa edo erakunde laguntzailea jakinaren gainean jartzeko betebeharra (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikulua 1. atalaren d) paragrafoan ezartzen da) ez betetzea.
- b) Diru-laguntza zertarako eman zen, helburu horietan funtsezko aldaketak egin eta, horrenbestez, jarritako baldintzak ez betetzea.
- c) Jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatu gabe edukitzea, horretarako epea igarota.
- d) Diru-laguntza arautzen duten oinarrietan eskatutako baldintzak faltsutuz lortzea erakunde laguntzaile izatea, edo hori galaraziko zuketena ezkutatu.
- e) Diru-laguntzak emateko baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatze-ko duen obligazioa ez betetzea erakunde laguntzaileak, baldin eta hori dela-eta diru-laguntza itzuli behar bada gerora.



- f) Diru-laguntzen Datu-base Nazionalari informazioa eman behar dioten administrazio, organismo eta gainerako erakundeek informaziorik ez ematea.
- g) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste larritzat jotzen diren gainerako jokabideak

20. artikulua. — Arau-hauste oso larriak

Jokabide hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Diru-laguntza ezarritako betekizunak faltsutuz edo diru-laguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatuz eskuratzea.
- b) Diru-laguntza zertarako eman zen, jasotako diru-kopurua, osorik nahiz partez, horretarako ez baliatzea.
- c) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitako kontrol-lanen aurrean erresistentzia azaltzea, aitzakiak ematea, eragozpenak sortzea edo ezetza ematea.
- d) Erakunde laguntzaileek, hala erabakitzen denean, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan finkatutako irizpideei jarraikiz jasotako funtsak onuradunei ez ematea.
- g) Europar Batasuneko diru-laguntzen alorreko araudian arau-hauste oso larritzat jotzen diren gainerako jokabideak.

21. artikulua. — Zehapenak**1. Zehapenak arau hauste arinengatik**

- a) Zehapen arin bakoitza 75 eta 900 euro artekoa izango da, hurrengo atalean xedatutako salbuespenekin.
- b) Kasuan kasu, 150 eta 6.000 euro bitarteko isuna ezarriko da arau-hauste haue-tako bakoitzagatik:
 - Eragiketaren bat oker jasotzea edo ez jasotzea kontabilitatean eta legeak eskatzen dituen erregistroetan.
 - Legez ezarritako kontabilitatea edo erregistroak izateko betebeharra ez betetzea.
 - Kontabilitate bat baino gehiago izatea jarduera eta ekitaldi ekonomiko bera dela eta, erakundearen benetako egoeraren berri edukitzea eragotzita.
 - Euren izaera dela eta, dagokienaz bestelako xedeetarako erabiltzea kontuak, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailduta.
 - Kontrol-organoek eskatutako froga edo dokumentuak ez ematea, edo erakusteari uko egitea.
 - Erakunde laguntzaileek ez betetzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 15. artikuluan ezarritako betekizunak.
 - Laguntza emateko eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 46. artikulua aipatzen duen dokumentazioa erakusteko betebeharra duten pertsona edo erakundeek betebehara hori betetzen ez dutenean, horrek ezinezko egiten duenean onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa erkatzea.

2. Zehapenak arau hauste larriengatik

Arau hauste larriak diruz zehatuko dira; zehazki, behar ez bezala jasotako, aplikatutako edo justifikatu gabeko zenbatekoa halako biren zenbateko proportzionala ordaindu behar da; erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatutako edo justifikatutako funtsak izango dira zehapen-erreferentzia.

Arau-hauste larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa emandako diru-laguntzaren edo erakunde laguntzaileek jasotako zenbatekoen % 50etik gorakoa bada, eta, era berean, 30.000 eurotik gorakoa bada eta bat badator Diru-laguntzei buruzko



azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 60. artikularen 1. ataleko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako baldintzaren batekin, arau-hausleei honako zehapen hauek ere ezarri ahalko zaizkie:

- a) Hiru urtera bitarteko epean herri-administrazioen edo beste erakunde publiko batzuen diru-laguntzak, laguntzak eta bermeak jasotzeko aukera galtzea.
- b) Hiru urtera bitarteko epean administrazioarekin edo beste erakunde publiko batzuekin kontratuak egiteko debekua.
- c) Hiru urtera bitarteko epean galtzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak araupetutako diru-laguntzetako erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20.3 artikuluan jasotako administrazio, organismo edo erakundeek informazioa emateko betebeharra betetzen ez badute, ohartarazi ondoren 3.000 euroko isuna ezarriko zaie, eta hileroko ezarri ahalko da harik eta betebeharra betetzen denera arte.

3. *Zehapenak arau hauste oso larriengatik*

Arau hauste oso larriak diruz zehatuko dira; zehazki, behar ez bezala jasotako, aplikatutako edo justifikatu gabeko zenbatekoa halako biren edo hiruren zenbateko proportzionala ordaindu beharko da; erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatutako edo justifikatutako funtsak izango dira zehapen-erreferentzia.

Nolanahi ere den, ez dira zehatuko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikularen b) eta d) paragrafoetan jasotako arau-hausteak, arau-hausleek zenbatekoak eta horiei dagozkien atzerapen-interesak itzuli dituztenean inork aurretik eskatu gabe.

Arau-hauste oso larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa denean eta bat datorrenean Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 60. artikularen 1. ataleko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako baldintzaren batekin, arau-hausleei honako zehapen hauek ere ezarri ahalko zaizkie:

- a) Bost urtera bitarteko epean herri-administrazioen edo beste erakunde publiko batzuen diru-laguntzak, laguntzak eta bermeak jasotzeko aukera galtzea.
- b) Bost urtera bitarteko epean administrazioarekin edo beste erakunde publiko batzuekin kontratuak egiteko debekua.
- c) Bost urtera bitarteko epean galtzea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak araupetutako diru-laguntzetako erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera.

Zehapen horiek ezartzeko organo eskudunak erabaki ahalko du Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea.

22. artikulua.—*Indarrean sartzea*

Ordenantza hau osorik argitaratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta indarraldia Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikulua aipatzen duen epea igaro ondoren hasiko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Aurreko Ordenantza Indargabetzea

Indargabeturik geratu da Derioko Udalaren Diru-laguntzak araupetzeko Ordenantza, 2018ko irailaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.